

Altzariak muntatzeko lanak bukatu dituzte Idiazabalgo liburutegi berrian

Uda osoa aprobetxatuko dute liburuak eta funtsak areto berrira eramateko; irailean irekita egongo da.

ESTITXU IMAZ

Behin liburutegi berria eraikitzeko obrak bukatuta, atzo amaitu zituzten altzariak muntatzeko lanak Idiazabalgo udal bibliotekan. Uda garaia aprobetxatuko dute liburuak, ipuinak eta gainerako materialak lekuz aldatzeko, Ioritz Imaz Idiazabalgo alkateak jakitera eman duenez. Irailetik aurrera irekita egongo da liburutegi berria.

Idiazabalen liburutegi berria egingo zutela erabaki eta gero, Udaleko kideek etorkizuneko liburutegiak nolakoa izan beharko zuen zehazteko hausnarketa prozesua abiarazi zuten. Liburutegia herritarrek erabiliko dutenez, haien iritzia jakin nahi zuen Udalak eta bilerarako deia egin zien herritarrei. Alkateak, kultura zinegotziak, herri eskolako zuzendariak, gurasoek, jubilatuek eta liburutegi ko arduradunak parte hartu zuten bertan. Bigarren batzarrean areto berria izango zena ikusteko tarte bat hartu zuten, aldeztatik aipatutako helburuak espazioan nola antola zitezkeen ikusteko. Beste herri batzuetako liburutegietako argazkiak ere ikusi zituzten.

Gune berezituak

Gerora beste bilera batzuk ere egin zituzten, eta liburutegi berriak gune desberdinak izatea egokia izango litzatekeela ondorioztatu zuten.

Horrenbestez, areto berriak hainbat gune ditu: batetik KZgunea, Internet zerbitzua erabiltzeko. Haur txikientzako gune berezitua ere badago, euren tamainara egokitutako altzariez hornituta. Gune horren helburuak haurrak txikitatik liburu artean ohitzea eta irakurzaletasuna bultzatzea dira. Liburuak kontsultatzeko eta ikasteko gunea ere badago. Aretora sartu eta berehala egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko espazio txiki bat egin dute; apalategia eta bi besaulki daude hemerrotekan. Bestalde, aretoaren sarreran dago harrera-lekua edo liburutegi ko arduradunaren lan tokia izango dena ere.